



Ruper Ordorika

Haizea garizumakoa

KD-807

Ruper Ordorikaren disko berri bat albiste ona da, zinez pozteko modukoa, kantariaren ibilbide sendo, oparo eta aberatsaren seinale baita. *Hautsi da anphora* berritzaile eta gogoangarri hartatik, zuzenean grabatutako *Hamar t'erdietan* azkenerraino, bakarkako hainbat disko plazaratu du bide gero eta interesgarriagoa jorratuz: berritzailea eta mugak gainditzen dituenetakoa, bakarlari gisakoa, rock eta pop estiloan, folk estiloan... Esan nahi baita, estilo berezi eta propioan, jatorrizko intuizioa du abiapuntu, eta kantuari garapen eta janzkera ego-kiak emanez (herrikoiak zein garaikideak, maila onekoak beti); bere arnasa badaezpadako iturri eta bidela- gun izan du hasieratik.


Ruper Ordorikaren ibilbidean garbi azaltzen zaigu zein diren estilo hori hezurmamitu duten gai, joera, maila eta ikusmugak. "Pott Banda" literatur taldeko partaide izan zenean, musika eta literatura uztartzeko nahi eta dohain berritzailearekin batera (aitzindaria Atxaga eta Sarrionandiaren poemak musikatzen), herri musika eta gaurko taupada garaikidea sortu eta lantzeko joera nabarmendu ziren; nondik eta zertaz ari zen garbi edukita, mugak gainditzearena ondorio naturala izan zen. Hortik goi mailako nazioarteko musikariak bere bidean txertatzen ere aitzindari izatea, orobat herri kantuak gaurko moldeetara ekartzen. Bide horri jarraiki, era progresibo batean, ondu ditu disko guztiak, Hiru Trukurekin egindakoak barne; esan nahi baita, kantu mota guztietan, berak dioen bezala, funtsean datzana kantua baita. Urteen poderioz, horrek denak kul- tuzko kantari egiteaz gain, hemen bezainbat mugaz gaindi, gure panoramako kantaririk enblematikoenetari- koa bilakatu da gero eta zale gehiagorentzat. Gure kantagintzan toki propioa eta ezin bereziagoa dauka.

Elkar diskoetxean plazaratu ditu azkeneko bi diskoak: *Memoriaren mapan gogoangarria*, akustikoa, eta *Hamar t'erdietan* zuzenekoak, ohiko mugalariekin egin duen azkena, ziklo baten amaiera gisa-edo. Garaia zen, beraz, disko berri baterako.

Emaitza bikaina dugu eskuartean: *HAIZEA GARIZUMAKOA*. Ruperrek sortu 12 kantu berriez osatutakoa; kantuak, musika eta letra, arreta eta dohain osoz ondu eta zehaztu ditu. Sonoritate eta testura bereziak lortzeko erronkan New Yorkeko musikari handiak izan ditu bidaide: Ben Monder, Kenny Wollesen eta Skuli Sverrisson. Brooklyn-en grabatua, disko honek berriro elkartu ditu lagun zaharrak. Emaitza ezin ederragoa da, Ruperrek berak ez ezik, zaleok ere behar genuen eta eskertzen dugun maila lortu baitu, mugarri bat ezarriz bere bilakaera musikalean, beste erreferente bat eskainiz gure kantagintzaren eremuan.

HAIZEA GARIZUMAKOA diskoko kantuak anitzak dira: hainbat jite, izaera eta taxuerakoak baitira. Inoiz baino hurbilago sentitzen dugu kantaria: oraintxe alai, laño, intimista, oraintxe sentikor eta iradokitzaile; benetakoa, betiere. Sonoritatea, aldiz, ezin finagoa eta egokiagoa.

Ezaguna da, baina merezi du errepikatzeak: Ruper Ordorika sorkuntzan dabil beti, orain disko berriarekin datorkigu, halako mailaz ondua non gure ikusmuga bere kantuz jantziagoa gelditzen den, gure belarriak eta gogoak era berezian gozatuak, gure ibilbidea nortuagoa. Albiste ona, bai: Ruper Ordorikaren *HAIZEA GARIZUMAKOA* disko berria kalean da jadanik.





Ruper Ordorika

Haizea garizumakoa

KD-807

Que **Ruper Ordorika** haya grabado un nuevo disco, sin duda, es una buena noticia, motivo de alegría, fruto inequívoco de la trayectoria constante y personal del cantante. Desde el rompedor *Hautsi da anphora*, hasta el disco en directo *Hamar t'erdietan*, rebotante de musicalidad, ha publicado varios discos trazando una trayectoria impecable: renovando y rompiendo esquemas. Ruper canta y compone desde su propio territorio, basado en una intuición original y ha ido profundizando progresivamente en el mundo de la canción con un talento que le ha proporcionado aliento desde sus comienzos.

En la trayectoria de Ruper Ordorika descubrimos sus temas, su visión y la cualidad que van modelando su estilo. Cuando participó en el grupo literario “Pott Banda” comenzó aunando música y literatura con propuestas renovadoras (pionero en musicar a Atxaga y Sarrionandia), y desde el principio se situó en el cruce entre la música popular y las formas contemporáneas. También ha sido pionero en invitar a músicos internacionales en sus discos, así como en saber ahondar en la música tradicional tratándola desde pautas actuales. Ha ido madurando todos sus discos con las ideas bien claras, incluidos los de canción tradicional con Hiru Truku, porque como él mismo dice, aunque la forma varíe, lo que permanece es la canción en sí misma. A lo largo de los años Ruper Ordorika se ha convertido en un cantante de culto, tanto aquí como fuera de nuestras fronteras, convirtiéndose en una voz emblemática para muchos de nosotros. Ha logrado un puesto de honor dentro de la canción vasca.

Sus últimos dos discos los ha publicado con la discográfica Elkar: *Memoriaren mapan*, un acústico ciertamente memorable, y *Hamar t'erdietan*, lleno de musicalidad, grabado en directo con los habituales “mugalaris”, como colofón de un ciclo. Buen momento, por lo tanto, para un nuevo trabajo.

El resultado ha sido excelente: *HAIZEA GARIZUMAKOA*. 12 nuevas canciones compuestas por Ruper; las canciones, la música, las letras han sido maduras con especial esmero, con máximo cuidado por el detalle. Para ir más allá en sonoridad y textura ha contado con la colaboración de “sus” músicos new-yorkinos: Ben Monder, Kenny Wollesen y Skuli Sverrisson. Grabado en Brooklyn, ha servido para el reencuentro con sus viejos colegas. El resultado es perfecto: es el disco que todos esperábamos, textos y música de Ruper en estado puro. Una vez más, se coloca a un nivel que parece difícil de superar en su trayectoria musical. Sin duda, toda una referencia dentro de nuestro entorno.

En *HAIZEA GARIZUMAKOA* nos invade la cercanía del cantante en sus distintos estados de ánimo: a veces alegre o intimista, otras veces sensible y sugente; pero siempre auténtico. Nos sumerge en una sonoridad madura y elocuente que es capaz de transportarnos a sus lugares preferidos.

Aunque es de todos conocido, merece la pena repetirlo: Ruper Ordorika es un creador nato y nos presenta su nuevo “Viento de Cuaresma”, cargado de buenos temas. Sus 12 canciones suenan con una finura exquisita en nuestros oídos, y nos conmueven. Por fin, una buena noticia: *HAIZEA GARIZUMAKOA* de Ruper Ordorika ya está en la calle.



DISKOGRAFIA / DISCOGRAFÍA:

HAUTSI DA ANPHORA , 1980 Elkar C.D.

NI EZ NAIZ NORUEGA KO ERREGE , 1983 Elkar C.D

BIHOTZERREAK , 1985 Elkar C.D.

H.BENGOA - INVENTARIUM B. Atxagarena. 1988 Elkar Cassette.

EZ DA POSIBLE , 1990 Gasa-Wea C.D. 2005 Metak

BILDUMA BAT , 1992 Elkar C.D. Lehen 3 diskoen hautaketa.

R.ORDORIKA & Mugalaris , 1992 Emak Bakia Mini C.D.

HIRU TRUKU , R.Ordorika, J. Tapia, B. Martinez, 1994 Nuevos Medios C.D.

SO'IK SO' , 1995 Nuevos Medios C.D.

HIRU TRUKU 2 , R.Ordorika, J. Tapia, B. Martinez, 1997 Nuevos Medios C.D.

DABILEN HARRIA , 1998 Nuevos Medios C.D.

GAUR, 2000 Esan Ozenki C.D. zuzenean.

HURRENGO GOIZEAN, 2001 Metak. CD.

RUPER ORDORIKA, 2002 Bilduma. Nuevos Medios CD.

KANTUOK JARTZEN DITUT, 2003. Metak CD.

HIRU TRUKU- Nafarroako kantu zaharrak, 2004. Metak CD

MEMORIAREN MAPAN, 2006. Elkar. CD

HAMAR T'ERDIETAN, 2008. Elkar .CD eta DVD.

HAIZEA GARIZUMAKOA, 2009. Elkar. CD

PRODUKTOREA zenbait grabaketan:

Hertzainak , Maurizia Leon eta Basilio , Emilio Cao, Tapia eta Leturia...

Zenbait EKITALDI LITERARIOTAN partaide, Bernardo Atxagaren gidaritzapean, besteak beste: "Henry Bengoa , Inventarium" eta "Lezio berri bat ostrukari buruz".